


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,3 igo dira 2021eko martxoan aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin alderatuta (2021eko martxoa 2020ko martxoarekiko), kostuak % 1,6 igo dira

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,3 igo da 2021eko martxoan, aurreko hilaren aldean. Urte arteko terminoetan, kostuak % 1,6 igo dira, Eustatek landutako datuen arabera.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 0,2 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 0,8. 2020ko martxoarekin alderatuta, bestalde, prezioen aldakuntza positiboa ere izan da: % 1,6 Etxegintzaren kasuan eta % 1,7 Obra Zibilarenean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilabetearen aldean **lehengaien** kostuak % 0,5 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, igoerak % 1,5 izan dira lehengaien kasuan eta % 1,9 eskulanaren kasuan.

Martxoan, Etxegintzaren azpisektoreak hil arteko % 0,3ko igoera izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak % 1,0koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,5 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 1,6.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntzatasak(p). 2021eko martxoa

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	107,8	0,3	1,6
Eraikinak	107,9	0,2	1,6
Obra zibila	107,3	0,8	1,7
LEHENGAI	107,0	0,5	1,5
Eraikinak	107,2	0,3	1,5
Obra zibila	106,4	1,0	1,6
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, 2021eko martxoan, 2020ko martxoaren aldean, honako sektore hauek nabarmendu dira igoeretan: *Petrolio finitza* (% 23,8), *Metalurgia* (% 11,8) eta *Material elektronikoa* (% 6,9). Aitzitik, prezioek behera egin dute sektore hauetan: *Mineral ez-metalikoak* (% 1,8 behera egin duena), *Makineriaren fabrikazioa* (% 1,6 behera) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 1,5 behera).

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021eko martxoa

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-1,8
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	2,2
10 - Petrolio finitza	23,8
11 - Industria kimikoa	2,9
13 - Kautxua eta plastikoa	-1,0
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	0,8
15 - Metalurgia	11,8
16 - Metalezko artikulak	1,1
17 - Material elektronikoa	6,9
18 - Material elektrikoa	2,3
19 - Makineriaren fabrikazioa	-1,6
22 - Altzarigintza	0,7
24 - Energia elektrikoa eta gasa	-1,5

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62